

## **FUNTSEZKO ELKARTEAK:**

Zerbitzua aurrera eramateko ezinbestekoa izango da beste enpresekin elkartzea. Enpresa horiek arroparen inguruko enpresak izan behar dira, merkatuan garrantzi handia dutenek nahiago ditugu. Arropa salgai edukiko dugunez (ez gure marka propioko jantziak) kalitate oneko produktuak dituzten enpresekin egongo gara kontaktuan.

Hauekin eguneroko abaintailak lortzeko ideia daukagu, abaintailei buruz hitz egitean deskontuei buruz ari gara. Elkarteak egitearen helburua, gure zerbitzuari berezitasun eta hobekuntza bat ematea da, bezeroen atentzioa lortzeko.

Enpresa hauen artean INDITEX osatzen duten marka guztiak hautatu ditugu, ezagunenak direlako eta hasieran lagungarria izango delako ikusgaiak izateko. Mailen bidez egongo gara kontaktuan, forma errazena delako.